

SAILBURUA
LA CONSEJERA**AGINDUA, 2019KO MAIATZAREN 28KOA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, ZEINAZ 2018KO URRIAREN 16KO AGINDUA ALDATZEN BAITA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA BETEKO DIRELA GARBIALDI SA ENPRESAKO LANGILEEK SEGURTASUN SAILEKO POLIZIA-BULEGOETAN GIZARTEARI EMATEN DIZKIOTEN EZINBESTEKO ZERBITZUAK.**

2018ko urriaren 16an, Garbialdi SA enpresako langileek Segurtasun Sailaren Gipuzkoako polizia-bulegoetan gizarteari ematen dizkioten ezinbesteko zerbitzuak beteko direla bermatzeko agindua ezarri zen, ELA, UGT, ESK eta LAB erakunde sindikalek aurkeztutako greba-deialdiarekin lotuta (deialdi mugagabea egin zen 2018ko urriaren 17tik aurrera), deialdiaren egileek adierazi bezala, ez dagoelako akordiorik Segurtasun Sailaren menpeko Gipuzkoako eraikin eta lokaletan lan egiten duten pertsonen eta enpresaren arteko hitzarmenean gauzatzen ari diren negoziazioetan, enpresak akordio bat onar dezan, hitzarmen honetako langileak arautzeko eta hainbat alderdi aurreikusteko (besteak beste, soldata-hobekuntzak, kontratazioko hobekuntzak, hitzarmena ez aplikatzeko adostutako klausulak, eta abar).

Eusko Jaurlaritzak Garbialdi SA enpresa kontratatu du garbiketa-zerbitzua egiteko Segurtasun Sailak Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauzkan polizia-bulegoetan.

Greba-deialdi honen aurretik beste bi egin ziren: batak 2018ko irailaren 19tik urriaren 3ra arte iraun zuen, eta besteak 2018ko urriaren 4tik 16ra arte. Batak zein besteak agindua eragin zuten: lehenengoak 2018ko irailaren 21ean, eta bigarrenak 2018ko urriaren 2an.

Grebaren ondorioak jasan zituzten eraikinak eta lokalak nola zeuden ikusirik aurkeztu ziren kexen eta salaketen ondorioz, bilera egin zen 2018ko abenduaren 19an Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan, eta akordioa lortu zen bertan, 2018ko urriaren 16ko aginduak xedatzen zuenaren harira sortu ziren gatazkak ebazteko.

2018ko urriaren 16ko aginduko bigarren ebatzian ezartzen da finkatutako gutxieneko zerbitzuak aldatu egin ahal izango direla grebaren iraupenagatik edo arrazoik higieniko biosanitarioak edo bat-bateko ezohiko arrazoiak direla-eta, administrazio-izapide egokiak bete ondoren.

Hainbat kexa eta salaketa aurkeztu zirenez, Gipuzkoako Lan Ikuskaritzak ikuskatu egin zituen grebaren eraginpeko lokalak; haien ondorioz egindako txostenetan azaltzen zen bisitatutako lan-zentroak osasungaitzak zirela. Horren aurrean, aldatu egin zen 2018ko urriaren 16ko agindua 2019ko otsailaren 4ko agindu baten bidez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren eraikinetan eta lokaletan ezohiko garbiketa egiteko. Agindu horren aurkako errekurtsioa aurkeztu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan: 111/2019 administrazioarekiko auzi-errekurtsioa abiarazi zen pertsonen oinarritzko eskubideak babesteko prozedura

berezian. Errekurtso hori 2019ko maiatzaren 8ko 254/2019 Epaiak ebatzi zuen: errekurtsua ezetsi egin zen, eta adierazi zen aurkaratutako agindua zuzenbidearekin bat datorrela.

Geroago, hainbatek aurkeztutako kexen eta salaketen ondorioz (espedientean ageri dira), Lan Ikuskaritzak Segurtasun Sailaren eraikin eta lokal batzuk bisitatu zituen, eta ondoren haien egoerari buruzko txostena egin zuen (hori ere espedienteari erantsi zaio).

Txosten horretan honako hau adierazten da:

- Aztertutako instalazioetan *lan-arloko deserosotasuna gailentzen da, ordena-eta garbiketa-faltagatik, eta sentsazio hori areagotu egiten da grebaren hasieraz geroztik igaro den denboraren zioz. Izan ere, arrisku higienikoak daude, hondar organikoak baitaude (elikagaien hondarrak, latak, vending-eko produktuak) langileen pasabiderako edo egonaldirako diren guneetatik hurbil. Gune saturatu batzuetan, edukiontziak eta zabor-poltsak falta direnez, langileek zuzenean lurrean uzten dituzte hondarrak. Ondorioz, horrek usain txarrak sortzen ditu, eta intsektuak eta karraskariak erakartzen.*
- *Deserosotasuna oso nabarmena da patruila-autoetan, atxilotuentzako tokian izan ezik.*
- *Egoera are larriagoa izan daiteke tenperaturak gora egiten duenean.*
- *Baldintza higienikoak ez dira egokiak langileen zerbitzura dauden instalazioetan (aldageletan, dutxetan, komunetan). Usain txarra dago, giroa kargatuta antzematen da, eta material higienikoa aldatzea falta da. Funtzionario batzuek gernubideetako infekzioa izan dute, eta adierazten dute beren ustez egoera honen ondorioz gertatu dela.*
- *Egoera higienikoa ez da egokia ez sukaldean ez jantokian. Zikinkeria dago, eta metatutako hondar organikoek usain txarrak sortzen dituzte.*
- *Prebentzio-zerbitzuak instalazioen egoera dela-eta gerta litezkeen arrisku handiko kasuak aztertu beharko ditu (alergiak, dermatitisak, begietako arazoak). Egoera horiei berariazko jarraipena egin behar zaie, neurri egokiak ezarri behar baitira dauden arriskuak neutralizatzeko, urritzeko edo kontrolatzeko, batetik, eta grebak langileen segurtasunean eta osasunean eduki dituen ondorioak ondo dokumentatzeko, bestetik.*

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak egindako txostenaren arabera Segurtasun Sailak Gipuzkoan dauzkan bulegoetako egoera geroz eta okerragoa da; izan ere, 251 greba-egun egon dira iazko irailaren 19tik (114 egun, ezohiko garbiketari buruzko aurreko agindua eman zenetik). Harrezkero, arrisku higieniko sanitarioa areagotu egin da, halako moldez non orain bulego horietan egunero lan egiten dutenak arrisku higienikoan baitaude, bai eta, oro har, bulego horietara joaten diren herritarrak ere. 2019ko otsailaren 4an, ezohiko garbiketa egiteko agindu arren, ez da eragotzi eraikin eta lokal horietan egoera erabat larritzea.

Halaber, akatsak antzeman dira alderdiek 2018ko abenduaren 19an gutxieneko zerbitzuez sinatutako akordioaren betearazpenean, ez baitira jaso materia organikoz kutsatuta egon daitezkeen denetariko hondakinak, akordioan jaso behar direla adostu

arren (aktan agertzen da). Horregatik guztiagatik, aldatu egin behar da 2018ko urriaren 16ko agindua, 2019ko otsailaren 4ko aginduak egin zuena egiteko, hau da, ezohiko garbiketa agintzeko Segurtasun Sailak Gipuzkoan dauzkan polizia-bulego guztietan, baina garbiketa-eremua zabaldua, patruila-autoak ere garbitu behar dira eta.

Oraingo agindu hau ere puntuala da, hots, egoera jakin bati aurre egiteko; izan ere, goian aipatutako EAeko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaiak dioen bezala, aginduaren helburua *grebaren ondorioak arintzea da, asko luzatu baita eta eragin handia baitauka langileen eta erabiltzaileen egoera higienikoan eta osasunean*. Eta hori, Salak adierazten duen bezala, berehala egin behar da, behar diren langileek jardun behar dute, eta lanak ezin dira luzatu behar baino gehiago.

Martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuak, lan-harremanei buruzkoak, honako hau xedatzen du 10.2 artikuluan: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharriazko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernu-agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartzezko neurriak har ditzake».

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari aitortzen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubidea baliatzen dutenean autonomia-erkidegoko ezinbesteko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko beharrezko diren neurriak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari hartuta, honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA. - - GARBIALDI SA enpresak, zeina Segurtasun Sailaren Gipuzkoako polizia-bulegoetako garbiketa-zerbitzuaren esleipenduna baita, ezohiko garbiketa-zerbitzua egingo du Segurtasun Sailak Gipuzkoan dauzkan polizia-eraikin eta -lokal guztietan: metatutako hondakinak jasoko ditu, eta ondoren guneak garbituko ditu.

Gainera, polizia-ibilgailu guztiak garbitu behar ditu, erabilera gorabehera.

Ezohiko garbiketa horretan, nolana ere, honako zeregin hauek sartuko dira: instalazio higieniko sanitario guztiak (bainugelak, jantokiak, aldagelak eta abar) garbitzea eta desinfektatzea, gainerako instalazioak (eskailerak, korridoreak, bilera-gelak, bulegoak, eta abar) garbitzea, eta era guztietako hondakinak biltzea, bai organikoak, bai inorganikoak.



Ezohiko garbiketa-zerbitzu hori berehala egingo da, lanak amaitzeko behar den beste iraun behar du, eta enpresak behar diren langile guztiak jarri beharko ditu.

BIGARRENA. - 2018ko urriaren 16ko aginduko xedapenetan ezartzen diren gutxieneko zerbitzuak egingo dira, alderdiek 2018ko abenduaren 19ko bileran adostutako akordioan ezartzen denarekin bat etorritz.

HIRUGARRENA. - Azaldutakoaren ondorioz, jakinarazten denean jarriko da indarrean agindu hau, eta ordutik aurrera sortuko ditu ondorioak.

LAUGARRENA.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Halaber, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 123. eta 124. artikuluetan xedatuari jarraikiz, jakinarazi egingo da agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daitekeela, lan-agintaritzan, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Gasteizen, 2019ko maiatzaren 28an



LAN ETA JUSTIZIA SALA
MINISTERIO DE TRABAJO
Y JUSTICIA
MARIA JESÚS CARMÉN SAN JOSÉ LOPEZ
LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA